

Aldundiak hezkuntza programa bat abiaraziko du ikasleen artean bizikletaren erabilera sustatzeko

Lehen Hezkuntzako 6. mailako 800 ikaslek segurtasunari eta ikastetxera joateko ibilbide seguruei buruzko ezagutzak jasoko dituzte

Bigarren urtez foru garraioan bidaia gehien egiten dituzten pertsonak aitortuko dira

Alavabus-en eta eskualdeko garraioaren txartelak dohainik izango dira irailaren 22an, asteartea, "Autorik gabeko eguna" ospatzeko

Jon Nogales: "Foru garraioak bidaiarien marka historikoa egin zuen 2025ean, eta aurten hazten jarraitzen dugu... Bidezkoa da Arabako herritarrek garraio publikoarekin eta mugikortasun jasangarriarekin duten konpromisoa aitortzea"

Vitoria-Gasteiz, 2006ko irailaren 14a. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak hezkuntza proiektu bat garatuko du ikasturte honetan, Lehen Hezkuntzako 6. mailako Arabako ikasleen artean bizikleta garraiobide gisa erabil dezaten sustatzeko. Proiektu horrek segurtasunari buruzko oinarritzko ezagutzak eskainiko dizkie 800 ikasleri udazkenean, eta ibilbide seguruak partekatuko ditu eskolara eta institutura bizikletaz joateko.

Jon Nogales Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Patricia Pérez Mugikortasun eta Garraio zuzendariak gaur aurkeztu dute proiektua Mugikortasunaren Europako Asteko programaren barruan. Programaren osagarri dira foru garraioa gehien erabiltzen duten arabarrei aitortpena egitea, Alavabus eta Eskualdeko Garraioaren txartelen doakotasuna irailaren 22an, "Autorik gabeko eguna" ekimena, eta udalerrri eta kuadrilletan informazio kanpaina berezi bat egitea.

Nogalesek gogorarazi duenez, Mugikortasunaren Europako Astea 2002an sortu zen, joan-etorrietan baliabide jasangarriak erabiltzeko beharraz sentsibilizatzeko herritarrak, eta azpimarratu du "premia hori gaur egun inoiz baino presenteago dagoela, gure hiri eta errepideetako auto pilaketagatik eta planetaren berotzea elikatzen duten emisio kutsatzaileak geldiarazteko premiagatik."

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Sailak, erronka horiekin bat etorritik, programa oso bat prestatu du, hiru helbururekin: bizikletaren erabilera sustatzea garraiobide gisa; eguneroko bizitzan foru garraio publikoaren erabilera intentsiboa egiten duten pertsonak aitortzea; eta arabarrei gehiago eta

hobeto ezagutaraztea beren udalerri eta eskualdeetan duten Alavabus eta Eskualdeko Garraioaren eskaintza.

Horretarako, eta lehenengo helburuarekin bat etorritik, ikasturtean zehar hezkuntza proiektu berri bat garatuko da, Lehen Hezkuntzako 6. mailako Arabako ikasleen artean bizikletaren erabilera sustatzeko, garraibide jasangarri eta osasungarri gisa. "Arabarren belaunaldi berrien hezkuntza eta sentsibilizazioa funtsezkoa da gaur eta, batez ere, bihar, mugikortasun jasangarrian aurrera egiteko" adierazi du Nogalesek

Ibilbide seguruak

Proiektu hau joan den ikasturtean lurraldeko 11 ikastetxetan gauzatutako esperientzia pilotuaren harrera bikainetik sortu da, 400 ikasle baino gehiagok parte hartu baitzuten. "Berme horrekin, aurtengo Lehen Hezkuntza ematen duten Arabako ikastetxe guztietara zabaldutako dugu proiektua, Gasteizen kokatuta daudenetara izan ezik, eta Sailaren egiturazko programa bihurtuko dugu. Horrela, 31 udalerri, 37 ikastetxe eta 800 ikasle baino gehiago sartuko dira programan".

Patricia Pérez Mugikortasun eta Garraio zuzendariak ekimen berritzaile honen xehetasunak eman ditu. "Saioek 3-4 bat orduko iraupena izango dute, eta *Beste bizikleta bat* metodologian oinarritutako prestakuntza teorikoa eta praktikoa izango dute. Metodologia horrek Bizikletaren aldeko hirien eta lurraldeen sarearen laguntza du eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak erabiltzen du hezkuntza ikastaro eta kanpainetan. "

Prestakuntza teorikoaren bidez, bizikletaren erabilerak pertsonen osasun fisiko eta mentalerako eta ingurumenerako dituen onurak transmitituko zaizkie ikasleei, baita bide segurtasunari buruzko oinarritzko nozioak (bizikletaren erabilera arduratsua eta bizikidetzaren arauak) eta oinarritzko mekanikari buruzko ezagutza teorikoak ere (bizikletaren elementuak eta funtzioa, ergonomia, ziztada bat konpontzea, gurpilen mantentze lana, aldagailuak eta frenoak berrikustea eta doitzeta, etab.).

Prestakuntza praktikoa dagokionez, ikasleek bizikletari buruzko trebetasun probak egingo dituzte, ikasteko distantziak kontrolatzen oztipo finkoekin, eta bizikleta esku batez kontrolatzen eta atzera begiratzen mugimenduan ibilbidea galdu gabe. Era berean, larrialdiko geldialdiak, biraketa handiak eta zirkulazio motela egingo dituzte, eta ariketa errealak egingo dituzte oinezkoekin eta beste garraibide batzuekin bizitzeko arauak nola aplikatzen dituzten erakusteko.

Azkenik, eta amaiera gisa, bizikleta irteerak programatutako dira ikastetxetik kanpo, ibilbide seguruak egiteko, begiraleekin batera.

Mugikortasunaren Europako Asteko programaren hurrengo ekintzen helburua da Eguneroko bizitzan foru garraio publikoa gehien erabiltzen duten arabarrak publikoki aitortzea bigarren urtez, 2025ean Alavabusean eta Eskualdeko Garraioan bidaia gehien egin zituzten hiru pertsonak saritzeko egingo den ekitaldi baten bidez. Sariak emateko ekitaldia datorren ostiralean, irailak 18, egingo da, Foru Jauregian.

Saria BAT txartel bana izango da, 270, 180 eta 90 euroko kargarekin.

"Foru garraioak 2,7 milioiko erabilerarekin errekor historikoa lortu zuen 2025ean, eta aurtengo urtean kopuru horiek hobetzen jarraitzen dugu, urtariletik abuztura % 7 hazi baita. Uste dugu bidezkoa dela Arabako

herritarrek garraio publikoarekin eta mugikortasun jasangarriarekin duten konpromisoa aitortzea”, esan du Jon Nogalesek

Kanpaina berezia

Programaren barruan sartzen da, halaber, Alavabus-en eta Eskualdeko Garraioaren lineetako txartelak dohainik izatea irailaren 22an, asteartean, “2026ko Autorik gabeko eguna” dela eta. Hamaika urte dituen neurri horrek mesede egingo die honako linea hauen erabiltzaileei: Alavabuseko 1-16 lineei, Araba Erdialdeko, Arabako Errioxako eta Aiarako emakidetan bilduta; Gasteiz Miranda de Ebroarekin eta Durangorekin lotzen duten lineak, 18. eta 19. lineak; eta Eskualdeko Garraioaren linea guztiak.

alavabus.eus web orrian daude kontsultagai linea eta emakida horien ibilbideak, geralekuak eta orduak.

Azkenik, eta programaren amaiera gisa, Sailak ekimen bat garatuko du datozen asteetan, arabarrei ezagutarazteko Alavabusek eta Eskualdeko Garraioak beren udalerrian eta kuadrillan eskaintzen dituen zerbitzuak. Kanpaina horren ardatza kuadrilletako eta udaletako teknikariei zuzendutako prestakuntza jardunaldi batzuk izango dira, zerbitzu horiek zabaltzeko tresna gehiago eta hobeak emateko.

Era berean, Jon Nogalesu diputatuak azaldu duenez, "alavabus.eus atarian udalerrri eta kuadrilla bakoitzerako espazio espezifikoak prestatuko ditugu, herritarrek erraz eta modu praktikoan ikusi ahal izan dezaten nondik joan daitekeen beren herri eta eskualdetik; Alavabus eta/edo Eskualdeko Garraioaren zein linea erabili behar duten horretarako; eta nola eros eta erreserba dezaketen txartela".

Ekimena osatzeko bannerrak prestatuko dira, toki erakunde bakoitzaren web orrian sartzeko, herritarrei foru garraioaren zerbitzuei buruzko informazio praktiko hori emateko.